

Erabiltzaile agurgarria.

Datorren **maiatzaren 4-tik aurrera** EKP-k kudeatzen dituen portuetan lotuta dauden **ontzien jabeak** ohiko mantenu eta ikuskatze lanak egitera joan ahal izango dute beren ontzietara, beti **ere beren ohiko bizilekua ontzia lotuta dagoen portuaren udalherri berean** baldin badago, **goizeko 9,30etatik arratsaldeko 18,30** etara eta ondorengo protokoloa jarraituz.

COVID-19AZ KUTSATZEA EKIDITEKO EUSKADIKO KIROL PORTUAK KUDEATUTAKO PORTUETAN ONTZIETARA SARTZEKO OINARRIZKO PROTOKOLOA.

- DERRIGORREZKOA DA OSASUN AGINTARIEK ALARMA EGOERARAKO EZARRITA DITUZTEN NEURRIAK BETETZEA; BAI EREMU GEOGRAFIKOARI DAGOKIONEZ, ZEIN PERTSONEN ARTEAN GORDE BEHARREKO **1,5M ETA 2M ARTEKO DISTANTZIARI** DAGOKIONEZ ETA DISTANTZIA HAU MANTENTZEA **EZINEZKOA GERTATZEN DENEAN MASKARATXOAK ETA ESKULARRUAK** ERABILTZEAREN BEHARRAZ, HALA NOLA PILAKETAK EKIDITU ETA **ESKUAK MAIZ GARBITZEARI DAGOKIONEZ.**
- **BANAN BANA ETA ESKUINETIK IBILI, BAI PANTALANETAN ZEIN ARRANPA EDO ESKAILERATAN ETA GURUTZATZEA EKIDITU.**

KONTUTAN IZANIK PORTUETAN DAGOEN URETARA ERORTZEKO ARRISKU HAUNDIA, KONTU BEREZIA IZAN NEURRI HAU GORDETZERAKOAN ETA IBILTZEN HASI BAINO LEHEN ITSARON



euskadiko kirol portuak
puertos deportivos de euskadi

KONTRAKO NORANTZAN DATORREN PERTSONA IGARO ARTE;
ETA BEHARREZKOA BADA ILARA ZAINDU LASAITASUNEZ ETA
MODU ORDENATUAN.

- **ONTZI BAKOITZERA PERTSONA BAT BAKARRIK JOAN AHAL IZANGO DA.**
- Ontzira **EGUNEAN BEHIN ETA GEHIENEZ ORDUBETEZ** joan daiteke
- **GARBITU ESKUAK BEREHALA** HIDRO-ALKOHOL GELAREKIN PANTALANETAKO ATEAK, HELDULEKUAK EDO HORNIDURA DORREAK IKUTU BAINO LEHEN ETA IKUTU ONDOREN.
- **EKIDITU BARANDA EDO HELDULEKUAK IKUTZEA.** Mugikortasun arrazoiengatik ezin bestekoa bada zuretzat arranpaladetako baranda edo heldulekuak erabiltzea, garbitu eskuak hidrogelarekin, aurretik eta ondoren.
- **ONTZIRA ZUZENEAN JOAN.** Ez egin talderik edota ez gelditu arranpala eta pantalanetan.
- ZURE ONTZIAREN OHIKO IKUSKAKETA ETA MANTENU LANAK **ORDU BETE BAINO GUTXIAGON EGIN.**
- **EZ EGON ETA EZ EZER UTZI PANTALAN EDO TA FINGER GAINETAN.**



euskadiko kirol portuak
puertos deportivos de euskadi

- **Zaborra** poltsa edota ontzi itxi eta egokietan sartu eta dagokion edukiontzian sartu. **EZ UTZI EZER EDUKIONTZIETATIK KANPORA.**
- Portutik atera aurretik eskuak garbitu hidrogelarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzak 1.

Fdo. Edurne Egaña Manterola

Zuzendaria